

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak 10 milioi euro inbertituko ditu ETE industrialei inbertitzen laguntzeko

*Urtarrilaren 31 arte eskatu daitezkeen diru-laguntzak FEDER funts komunitarioekin kofinantzatuta daude*

Asteazkena, 2018.eko abenduak 12

Garapen Ekonomikoko Departamentuak 10 milioi euro bideratuko ditu ETE industrialentzako inbertsio-laguntzetara, FEDER funtsekin kofinantzatuta, lehia-posizioa hobetzen lagunduko dieten inbertsio produktiboko proiektuak gauza ditzaten. Diru-laguntzak eskatzeko epea urtarrilaren 31n amaituko da.

Industria sektoreak Foru Komunitateko egitura produktiboan duen pisua indartzea da dirulaguntza hauen helburua, eta hazkunde ekonomikoa, produktu eta merkatuen dibertsifikazioa, prozesu eta teknologia berriak eta kostuen murrizketa xede dituzten ekoizpen eta komertzializaziorako inbertsioak sustatuko dituzte.

Halaxe jaso da asteazken honetan, abenduak 12, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratutako Politika Ekonomiko eta Enpresariareko eta Laneko zuzendari nagusiaren [ebazpenean](#). Eskaerak aurkezteko epea bihar, ostegunez, abenduak 13, ireki eta 2019ko urtarrilaren 31ra arte luzatuko da. Eskaera guztiak Nafarroako Gobernuaren webguneko tramiteen [katalogoko fitxaren](#) bitartez aurkeztuko dira, eta bertan eskuratu ahalko da deialdiari buruzko informazio guztia.

Laguntza hauek bat datoz, Foru Komunitateko industria sektorea indartzeko eta enplegua nahiz enpresen batez besteko tamaina gehitzeko, Gobernuak [Nafarroako 2020ko Industria Planean](#) zehaztu dituen helburuekin.

### Enpresa eta proiektu onuradunak

Hauexek dira aipaturiko dirulaguntzak eskatzen ahal dituzten enpresak: manufaktura-industriakoak, lurrun eta aire egokituaren hornitzaileak, hondakinen tratamenduan eta deuseztapenean dihardutenak, logistikakoak, informazio eta komunikazio arloko jarduerak garatzen dituztenak eta ingeniariak, ikerketa eta garapeneko zerbitzu teknikoetan nahiz diseinu espezializatuko jardueretan dihardutenak.

Diruz lagunduko dira aktino material edo immaterialetan egindako inbertsio-proiektuak helburu hauetarako: establezimendu berri bat sortzeko, dagoeneko abian dagoen establezimendu bat handitzeko, ekoizpena dibertsifikatzeko eta fabrikazio-prozesu orokorrean funtsezko alaketaren bat egiteko. Horrekin batera nabarmendu behar da, eskaerak

ebalatu eta laguntzaren intentsitatea kalkulatzeko erabiliko diren irizpideen artean, kontuan hartuko direla fabrikazio aurreratuko (4.0 Industria) sistemetan egindako inbertsioaren portzentajea eta berdintasunaren aldeko planak abian izatea. Ezarritako banakako ebaluazio-araubideari jarraiki, eskaerak aurkezpen-hurrenkeraren arabera baloratuko dira.

Proiektuak laguntza eskatzen den egunetik laguntza emateko ebazpenean zehaztutako azken egunera bitarteko epean gauzatu beharko dira, eta beranduenez, 2020ko martxoaren 31 baino lehen.